



# USKI'S DISKOAK

**The Uski's** taldeari (Elantxobe-Ibarrangelu, Bizkaia, 2003) familian abesteko ohiturak eman zion ideia eta hasiera. Anaiak, lehengusuak eta txikitako lagunak lotu dira The Uski's taldean alaitasuna emateko musikari. The Uski's taldearen lehen diskoa (Itxosun zarati) 2005ean kaleratu zen. Musika irribarretsua, kantu erakargarriak, melodia errazak, betiko rock and rolla arina, eta gustagarria entzun orduko. 2007an, "Barikun" diskoak lehengoaren bidea jorratu zuen. Musika jaiaren dinamika bezala pentsatuta, alaitasuna lau haizetara. The Uski's taldearen doinuek Euskal Herriko musika serioaren zutabeak bota nahi zituzten hankaz gora. Hasieratik, The Uski's taldearen abestiak maiz entzun dira irrati uhinetan. Hirugarrena, "Katuek bezala", 2009an argitaratuko da. The Uski's taldeak musikaren esparruan txokoa irabazita dauka. Eta horrela segituko du oraingoan ere.

The Uski's taldeak argitaratutako laugarren lana, "Tximinotan", Mungiako Musikon estudioetan grabatu da 2012ko urtarrila eta otsailean. Grabazioa, produkzioa eta nahasketak Iñigo Etxebarrietak (Pitu) egin ditu, orain zortzi urte The Uski's taldearen lehen teknikaria izan zen, egun Gatibu eta Extremoduro taldeen teknikaria da. Iñigok bere anaiaren (Txortx) laguntza izan du. Tronpeta Ibon Sanmiguelen jo du eta Pituk perkusioak. Argazkiak eta diseinua Iker Barberok egin ditu.

The Uski's taldearen "Tximinotan" diskoa euren laugarren lana da. Abiadurari dagokionez, bi alde ditu diskoak: zitzu bizian doazen rock and roll abestiak eta, bestaldetik, doinu motelek hartzen duten balada kutsua. Dantza soltean egiteko rock and roll abestiak, gorputza mugitzeko aproposak dira eta abiadura osoan doaz. Bikotean guztiz elkarturik dantza egiteko balada erakargarriek hasierako tximista sortak geratu egingo ditu. Rock and rolla bero dabil, baladei kea darie. Diskoa beroa da bere osotasunean. Dantza azkarretan hauspoaren goritasuna, dantza geldoetan bihotzaren sugarra. The Uski's taldearen doinuek jaiaren bi alderdi bat datozkigu: martxa eta abaila zein nare uneak eta baretasuna. The Uski's taldearen musika garai bateko rock and rollaren indarrez gainezka doa poparen irriñoekin, bluesaren aztarnekin, funkyaren zipitzinekin, baladen erasoekin, countryaren ferekekin.

Ez dogu pentzetan hain rockeroa denik, disko oso zabala da eta betiko modun hainbat estilo ezberdin egiten doguz; guk diñogun modun, urteten zaiguna egiten dogu. Rocka da ardatza betikolez baina badeuz pop/funky eta country tokenen bat be bai. Hondartzako doinueetatik itsasoko doinuegara pasatu gara agian.

Bai, asko gustatzen zaigu tximinotan jutea eta klaro tabernatik pasa behar da itsosora jun orduko, ta badakigu, batzuk bidean geratzen dira. "Ere ke ere" beste gauza bat da. Gu geu eta lagun asko lanik gabe geratzen gabiz eta langileen aldeko oihu bat egiteko garaia zala uste izan dogu, usaba kabroi.

Buruan eukitzen dogun soinua inoiz ez da lortzen. Disko bat grabatzean jende askoren arteko akordioak hartzen dira eta, azkenean, geratzen dena hartutako erabakiek markatu diguten bidea da. Oso gustora egon gara Muxikon estudioetan Pitu eta Txortxeekin.

2005, "Itxosun zarati" (Oihuka)  
2007, "Barikun" (Oihuka)  
2009, "Katuek bezala" (Baga-Biga)  
2012, "Tximinotan" (Baga-Biga)

ritxi aizpuru (20012ko apirilaren 18)

